



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko apirilaren 14a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria aldezteko neurri-sorta ezohiko eta berariazko bat onets dezan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (2. or.).
- 11-26/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez AEBek eta Israelak Iranen aurka abiarazitako gerra ilegala arbuiazen baita. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/POR-00120. Galdera ezohikoa, zeinaren bidez jakin nahi baita zerk eragotzi duen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuak bidalitako eta/edo jasotako edozein mezu elektronikori buruzko informaziorako sarbidea, legegintzaldi honetan nahiz aurrekoan. Cristina López Mañero andreak egin du (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-26/OAN-00001. Nafarroako Parlamentuko atalondoan KulturAtrio proiektuaren baitan erakusketak egiteko exijitzen diren baldintzak aldatzea (6. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 11-26/DFL-00001. 1/2026 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen (9. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria aldezteko neurri-sorta ezohiko eta berariazko bat onets dezan

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria aldezteko neurri-sorta ezohiko eta berariazko bat onets dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria aldezteko neurriei buruzkoa.

Zioen azalpena

Ekialde Hurbileko gatazka belikoa, zeinak bereziki eragiten baitio Irani, zuzeneko inpaktua izaten ari da ekoizpen-kostuetan eta energiaren, erregaien, ongarrien eta nazioarteko logistikaren kostuetan, eta horrek eragin bereziki handia du lehen sektorean eta nekazaritzako elikagaien industrian.

Egoera hori ez zaio arrotza Nafarroari, non nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien sektorea estrategikoak baitira ekonomiarako eta lurralde-kohesiorako. Errentagarritasunaren galerak, erregulazio-presioak eta merkatuen ziurgabetasunak markatutako testuinguru honetan, nekazariak, abeltzainak, kooperatibak eta industriak kostuen iguera jasaten ari dira beste behin.

Espainiako Gobernuak horiek aldezteko neurri-sorta bat onetsi du oraintsu; besteak beste, nekazaritzako gasoliorako laguntzak, ongarrien kostuarekin lotutako neurriak eta energiaren arloko zerga-beherapenak. Hala ere, neurri horiek, beharrezkoak izanik, ez dira inondik ere aski Nafarroako sektorearen errealitate espezifikoari erantzuteko.

Bitartean, beste autonomia-erkidego batzuk laguntza ekonomiko, finantzario eta industrialerako tresna berekiak ezartzen hasi dira, haien ekoizpen-sektoreak babesteko, egungo krisiaren inpaktuari aurre hartuz.

Testuinguru horretan, bereziki garrantzitsua da gogoratzea Nafarroak foru-araubide berekia duela, zerga- eta finantza-arloan ahalmen normatibo osoa duela, eta hori funtsezkoa da krisi-egoeretan ekoizpen-sarea babesteko. Foru-autogobernua ezin da adierazpenezko elementu huts gisa ulertu, baizik eta benetako jardun-tresna gisa, ekonomia produktiboak hala eskatzen duenean aktibatu behar dena.

Horregatik, Foru Komunitateak behar adinako tarteak du zerga-neurri berekiak ezartzeko, bere politika ekonomikoa egokitzeko eta lehen sektoreari eta nekazaritzako elikagaien industriari laguntzeko mekanismo espezifikoak taxutzeko, estatu-ko neurriak aplikatze hutsera mugatu gabe.

Hala ere, orain arte Nafarroako Gobernuak ez du planteatu arazoaren handitasunarekin eta Foru Komunitatearen autogobernu-ahalmenekin bat datorren erantzun integralik.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekotzat jotzen dugu Nafarroako errealitateari egokitutako premiazko jarduketara espezifikoko bat.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait lasterren onets dezan lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien industria aldezteko neurri-sorta ezohiko eta espezifikoko bat, egungo egoera geopolitikoaren ondoriozko kostuen igoera konpentsatzeko eta sektoreko ustiatzaren eta enpresen bideragarritasuna bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zuzeneko laguntzak eta aparteko likidezia-mekanismoak taxutu ditzan, finantza-tresnak barne, nekazaritza- eta abel-

tzaintza-ustiatzeari, kooperatibei eta nekazaritzako elikagaien industriei zuzenduak, arreta berezia jarritzaren kostuen igoera gehien pairatzen duten azpisektoreetan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerga-arloan dituen eskumenak osorik baliatu ditzan, lehen sektorearen eta nekazaritzako elikagaien sektorearen zama ekonomikoa modu eraginkorrean arintzea ahalbidetuko duten neurri berekiak hartuz, eta, horrela, Foru Komunitatearen lehiakortasuna eta ekoizpen-ahalmena indartuz.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza-neurri espezifikokoak ezar ditzan energiaren, erregaien eta ongarrien kostuen igoera konpentsatzeko, Estatuak onetsitako neurrien osagarri eta gehigarri gisa.

Iruñean, 2026ko martxoaren 26an

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-26/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez AEBek eta Israelek Iranen aurka abiarazitako gerra ilegala arbuiatzen baita

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez AEBek eta Israelek Iranen aurka abiarazitako gerra ilegala arbuiatzen baita.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, AEBek eta Israelek Iranen aurka abiarazitako gerra ilegala arbuiatzeko honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

2026ko otsailaren 28tik, Irango egoera gatazka ireki bilakatu da, Estatu Batuek eta Israelek Irango instalazio estrategikoen kontra hasitako erasoaldiaren ondorioz. Ekintza horiek, zeharo ilegalak eta nazioarteko zuzenbidearen kontrakoak, segurtasun-neurriak balira bezala justifikatu dira.

Iranen erantzunak gatazka areagotu du, handitu eta igo egin direlako ezegonkortasuna eta tentsioa erregio osoan, gune estrategikoak arriskuan jartzeraino, hala nola Ormuzko itsasarteak, zeina funtsezkoa baita energia-hornidura mundialerako.

Iranen kontrako eraso militarrek, Nazio Batuen Erakundeak ezarritako mekanismoei muzin eginenez, aldebakartasuneranzko eta indarraren inposizioranzko deriba arriskutsua dira, nazioarteko erakundeak ahultzen eta bakea nahiz segurtasun globala arriskuan jartzen dituenak.

Esperientziak sarritan erakutsi digu gerrak ez dituela arazoak konpontzen, baizik eta larriagotzen. Lege-urraketa bati beste batekin erantzuten zaionean, indarkeria-espinal batean sartu besterik ez da egiten, zeinaren ondorioak beti pairatzen baititu populazio zibilak: bizitza galduak, familia lekuz aldaraziak, krisi humanitarioak eta bizibaldintzen okerragotze orokorra.

Eta ondorio horiek ez daude uste bezain urrun. Gatazka hori jada igartzen ari da jendearen egunerokoan: energiaren prezioa gora egiten ari da, inflazioa gora egiten ari da eta ekonomia ahultzen ari da. Ia beti bezala, langile-familiak dira egoera gehien pairatzen dutenak; izan ere, haien errealtatetik urrun hartzen diren erabakiek eragin zuzena dute haien eguneroko bizitzan. Horregatik, bakea defendatzea justizia soziala defendatzea ere bada.

Horregatik, Espainiako Gobernuak urrats bat gehiago egin du (Ukrainako gerraren edo Gazaren kasuan jada egin zuen moduan), baita Nafarroako Gobernuak ere, berehalako erantzuna eman diolako gerrak duen inpaktuari, ekiditeko, neurri ekonomikoak hartuz, krisiaren larritasuna areagotzea eta herritarrek ahalik eta gutxien pairatzea beren egunerokoan gatazkaren ondorioak.

Estatu Batuek eta Israelek "su-eten" ahul eta mugatu bat iragarri badute ere, agertokia zalantzagarria eta arriskutsua da, ez diolako amaiera

ematen gatazkari eta eta ez duelako eskalada-arriskua desagerrarazten.

Gauzak horrela, ezin da beste alde batera begiratu. Erakunde demokratikoek argi eta garbi adierazi behar dute euren jarrera, nazioarteko zuzenbidea defendatu behar dute eta herrien arteko bizikidetzara arriskuan jartzen duen indarkeria-mota oro arbuiatu behar dute. Gaur, inoiz baino gehiago, argi eta ozen esan behar da: gerrarik ez. Bai bakeari, elkarrizketari eta lankidetzari, gatazka konpontzeko bide bakarria hori delako.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatzen du Estatu Batuek eta Israelek Iranen aurka hasitako gerra ilegal eta bidegabea, bai eta Nazio Batuen Gutuna nahiz nazioarteko zuzenbidea urratzen duen beste edozein ekintza militar ere, eta berresten du konprometituta dagoela bakearekin, gatazken konponbide politikoarekin eta nazioarteko eskubidearekiko errespetuarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak berehalako su-etenaren exijitzen du, egiazkoa eta egiaztagarria Ekialde Hurbileko lurralde osoan, salbuespenik gabe. Eta orobat exijitzen du populazio zibilaren kontrako indarkeria-mota amaitu dadin.

3. Nafarroako Parlamentua aire-eremua Estatu Batuen operazio militarrei ixtearen alde dago, eta errefusatu egiten du Espainiako base militarrek (Rotakoa eta Moróngo, kasu) gerrari lotutako operazioetarako erabiltzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 8an

Eleduna: Ainhoa Unzu Garate

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00120. Galdera ezohikoa, zeinaren bidez jakin nahi baita zerk eragotzi duen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuak bidalitako eta/edo jasotako edozein mezu elektronikori buruzko informaziorako sarbidea, legegintzaldi honetan nahiz aurrekoan

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

2026ko apirilaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 16.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, eskatu du deitzen den lehenbiziko Osoko Bilkuran sar dadin ezohiko galdera bat, zeinaren bidez jakin nahi baita zerk eragotzi duen 11-25/PEI-00245 espediente-zenbakiari buruzko informazioa berehala eman dadin Mahaiak egindako errekerimendua betetzea.

Aipatu artikuluekin eta Erregelamenduko 42.1 seigarrena eta zazpigarrena artikuluekin bat, ERABAKITZEN DA:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero aurkeztutako ezohiko galdera, zeinaren bidez jakin nahi baita zerk eragotzi duen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuak bidalitako eta/edo jasotako edozein mezu elektronikori buruzko informaziorako sarbidea, legegintzaldi honetan nahiz aurrekoan (11-26/POR-00120).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den lehenbiziko Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/OAN-00001. Nafarroako Parlamentuko atalondoa KulturAtrio proiektuaren baitan erakusketak egiteko exijitzen diren baldintzak aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Juridikoek egindako txostena, Nafarroako Parlamentuko atalondoa KulturAtrio proiektuaren baitan erakusketak egiteko exijitzen diren baldintzak aldatzeari buruzkoa —baldintza horiek 2016ko otsailaren 8an Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsi zituen (2016ko otsailaren 17ko 19. NPAO)—.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuko atalondoa KulturAtrio proiektuaren baitan erakusketak egiteko exijitzen diren baldintzak eta atalondoa erabiltzeko eskabide-eredua aldatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko atalondoa erakusketak egiteko exijitzen diren baldintzak

1. Erakusketen xedea:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erakusketak egiteko baimena ematearen xede bakarra izanen da lana jendarteratzea eta ezagutaraztea, Parlamentuak artistei beren lana ezagutzera ematen lagundu nahi baitie. Erakusketak irauten duen bitartean ez da artelanen salerosketarik eginen inolaz ere.

2. Garraioa eta aseguruia:

Erakusketa-egilearen kontura izanen dira obra garraiatzea, bidaltzea, muntatzea, desmuntatzea eta itzultzea, bai eta horien ondoriozko gastuak ere, non eta obraren interesak besterik aholkatzen

ez duen eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak besterik erabakitzen ez duen. Erakusketa-egileak, halaber, artelanen aseguruia egin ahalko du egoki irizten badio, eta hori ere bere kontura egin behar du. Nafarroako Parlamentuko langileek gainbegiratuta eta ohiko lanaldiaren barruan eginen dira lan horiek.

3. Erakusketaren edukiaren gaineko erantzukizuna:

3.1. Izaera pertsonaleko datuak eta hirugarrenen eskubideak.

Erakusketaria izanen da erakusketaren edukiaren eta, zehazki, bertan ager litezkeen pertsona fisikoen datu eta irudien gaineko erantzule bakarra. Hori dela-eta, alde zuzenetik eduki behar du irudietan ageri diren pertsonen baimen espresu eta balioduna, edo horiek erabiltzea legitimatzen duen beste edozein oinarri juridiko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko 1/1982 Lege Organikoan nahiz aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

3.2. Egile-eskubideak eta jabetza intelektuala.

Erakusketaria izanen da erantzule bakarra erakusketako obrak, argazkiak, irudiak, testuak, ikusentzunezkoak edo bestelako materialak direla-eta egon litezkeen jabetza intelektualeko eskubideen errespetuari dagokionez.

Zehazki, erakutsitako obren gainean izan beharreko ustiapen-eskubideak izan beharko ditu erakusketariak, edo horiek erreproduzitzeko, jendaurrean komunikatzeko edo erakusteko kasuko baimenak edo lizentziak eduki beharko ditu, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege-dekretuaren

bidez onetsitako Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginean nahiz aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

3.3. Nafarroako Parlamentuaren erantzukizuna.

Nafarroako Parlamentuak ez du erantzukizunik hartzen artelanak osorik edo partzialki hondatzea ekar dezaketen istripuak, lapurretak, suteak, katastrofeak eta abar direla-eta gerta litezkeen kalteen kasuan.

Erakusketariak erantzukizun orotatik salbuesten du Nafarroako Parlamentua, egin beharreko jardueraren garapenean eragin lezaketen ingurubar eta gorabeherak direla-eta, eta espresuki uko egiten dio Legebiltzar honen aituzinean balia litzakeen akzioak abiarazteari, bai eta, kasua balitz, kalte-galerak eskatzeari ere.

Nafarroako Parlamentuak ez du erantzukizunik bere gain hartzen erakusketariak irudiei emandako erabilera dela-eta; hortaz, hari soilik dagokio hirugarrenen eskubideak urratzetik hel daitekeen erreklamazio, erantzukizun edo ondorio juridiko oro, baita datu pertsonalen babesari, norberaren irudirako eskubideari eta egile-eskubideei nahiz jabetza intelektualari dagozkienak ere.

Erakusketariak hitzematen du Nafarroako Parlamentua salbu egonen dela erakusketaren edukitik hel litekeen erreklamazio, prozedura, zehapen, kalte, galera, kostu edo gastu orotatik, defentsa juridikotik hel litezkeenetatik barne, eta, zehazki, pertsona fisikoen irudien erabileratik hel litezkeenetatik, datu pertsonalen babesari, ohorerako eskubideari, norberaren nahiz familiaren intimitateari, norberaren irudiari, egile-eskubideei, jabetza intelektualari nahiz hirugarrenen bestelako ezein eskubideri buruzko araudia urratzeagatik.

Eginbide horrek hirugarrenek egindako erreklamazioak nahiz agintari administratibo edo judizialen egintzak barne hartzen ditu, hargatik eragotzi gabe erakusketariari, kasua bada, zuzenean dagozkion erantzukizunak.

4. Segurtasuna:

Erakusketariak, Parlamentuak aldeztu aurretik baimena emanda, egoki iritzitako segurtasun-neurriak hartzen ahalko ditu bere kargura. Erakusketariak bere gain hartuko du oso-osorik arlo horretan sor litekeen edozein gorabehera, eta Parlamentuak ez du inolako kalte-ordainik ordaindu behar izaneren kalte-galerak direla-eta.

Parlamentuko atalondoan zaintza-kamera bat dago, irudiak grabatzeko sistema eta guzti, zeinak baliatzen ahalko baitira erakusketak dirauen bitartean gorabeherarik gertatzen bada.

5. Muntaketa eta artelana:

Erakusketariak arduratu behar du erakusketa muntatu eta desmuntatzeaz, pertsonalki edo behar bezala kreditatutako bere konfiantzazko pertsona baten bidez. Ezin izanen da erabili hormetan kalte egin dezakeen materialik (iltzerik, txintxetarik, itsasgarririk...), ez eta atalondoaren dekorazioa eta altzariak aldatu ere, Nafarroako Parlamentuaren baimen espresurik gabe.

Nafarroako Parlamentuak beretzat gordetzen du erakusketa batek irauten duen bitartean atalondoan Legebiltzarren berezko jarduerak egiteko ahalmena; halatan, beharrezkoa balitz, erakusketako lanak lekuz alda litezke aldi baterako. Aldi baterako lekualdaketa hori erakusketariak egin beharko du, bere kontura eta bere ardurapean, Legebiltzarreko zerbitzuek aldeztu aurretik ohartarazita.

6. Erakusketen ordutegia:

Erakusketak honako ordutegi honetan egingen dira, ahal dela: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara (ostegunetan izan ezik); eta larunbatetan, 11:30etik 14:00etara.

7. Publizitatea:

Nafarroako Parlamentuak afixa bat egingen du, osoki bere kargura, erakusketa iragartzeko, egoki iritzitako moduan eta erakusketariarekin adostuta.

Nafarroako Parlamentuak bere gain hartuko du erakusketaren aurkezpena eta zabalkundea egitea webgunearen eta sare sozialen bidez.

Erakusketariak publizitate osagarria egiten ahalko du, bere kontura, Nafarroako Parlamentuarekin koordinatuta.

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO ATALONDOA ERAKUSKETETARAKO
ERABILTZEKO ESKABIDEA**

| DATU PERTSONALAK | |
|--|--|
| Abizenak eta izena | |
| NANa | |
| Helbidea | |
| Telefonoa | |
| Helbide elektronikoa | |
| ERAKUSKETAREN DATUAK | |
| Lanaren izena | |
| Zein egunetan egingen den | |
| Ordutegia | |
| Jardueraren arduradun den pertsona fisikoa | |
| Telefonoa | |
| Helbide elektronikoa | |
| <p>Honekin batera, honako eduki hau zehazten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nolako lana jarri nahi den erakusgai - Zenbat lan jarri nahi diren erakusgai - Lanen gehieneko eta gutxieneko neurriak - Lan bakoitzaren ezaugarri teknikoen deskribapena - Erakusgai jarri nahi den lanaren argazki-dosierra | |
| Oharrak | |
| <p>Honen bidez deklaritzen dut erakusketa egiteko baldintza guzti-guztiak ezagutzen ditudala – eranskinean jasota daude–, eta eskaera hau onartzen bada horiek guztiak onartzeko konpromisoa hartzen dut. Zehazki, adierazten dut pertsona fisikoen irudiak erabiltzeari, datu pertsonalak babesteko araudia betetzeari eta ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea errespetatzeari buruzko baldintzak ezagutzen eta onartzen ditudala, bai eta egile-eskubideei eta jabetza intelektualari buruzkoak ere, eta konpromisoa hartzen dut horiek guztiak betetzeko eta erakusketaren edukitik erator daitekeen erantzukizuna nire gain hartzeko.</p> | |

.....(e)(a)n, 20.....(e)ko(a)ren(e)(a)n.

Sinadura

NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

11-26/DFL-00001. 1/2026 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen

2026ko apirilaren 13an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak ziurtagiria igorri du, honako legegintzako foru-dekretuarena: 1/2026 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 183. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea legegintzako foru-dekretu honen berri izan duela: 1/2026 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1/2026 Legegintzako Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldatzen dituen

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu araubidea Estatuko tributu araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horren barnean, aipatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 31 bis eta 32. artikuluek ezartzen dute ezen, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga (aurrerantzean, EEEBZa) eta balio erantsiaren gaineko zerga (aurrerantzean, BEZa) ordainarazteko, Nafarroak aplikatuko dituela Estatuko lurraldean une bakoitzean indarra duten arau substantibo eta formal berak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zerga horien aitortpena eta ordainketak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetatik funtsean aldatu gabe.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 53.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, baldin eta tributu araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu Estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berak Foru Komunitatean aplikatzera Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak behar diren foru lege mailako arauak eman di-

tzake tributu arloko foru legeak aldatzeko, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, “tributu harmonizazioarako legegintzako foru dekretu” izena emanen zaie.

Estatuan, martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege-dekretuak, Ekialde Ertaineko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duenak, BEZari eta EEEBZari buruzko araudia aldatu du, Ekialde Hurbilean berriki hasitako gerrak eragindako energia-krisiaren ondorio ekonomikoari aurre egiteko.

Sektore elektrikoan, handizkako merkatuan elektrizitatearen prezioa zehazten duten enpresek produktu energetikoen garestitzearen ondorioz jasaten dituzten kostu handiagoak konpentsatzeko asmoz, zenbait minorazio ezarri dira EEEBZaren zerga-oinarria kalkulatzeko moduan, prezio lehiakorragoak eskaini ditzaten kontsumitzaileen mesedetan.

Zehazki, 2026ko ekitaldirako, honako hau izanen da EEEBZaren zerga-oinarria: zergadunak, zergaldi horretan, energia elektrikoa ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzeagatik jaso behar duen zenbateko osoa, zentralerako barretan neurtua, instalazio bakoitzeko, eta zenbateko hori murriztuko da lehenengo hiru hileko naturalean sistemaren sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien % 10 kenduz, eta bigarren hiru hileko naturalean sistemaren sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsari guztiak kenduz.

BEZaren eremuari dagokionez, 2026ko ekainaren 30era arte, ohiz kanpo eta aldi baterako, % 21etik % 10era murrizten da energia elektrikoaren kontratuei aplikatu beharreko BEZaren tasa, baldin eta haien potentzia-termino finkoa ez bada 10 kW-etik gorakoa. Horrek esan nahi du, funtsean, azken kontsumitzaile diren etxebizitza ia guztiei aplikatu behar zaiela, bai eta, bonu soziala jasotzeaz gain, kaltebera larriaren izaera edo gizarte-bazterketa arriskuan dagoen kaltebera larriaren izaera aitortuta duten elektrizitatearen hornidura-kontratuen titularrei ere, betiere kontsumitzaile kalteberenen pobrezia energetikoko egoerak arintzeko asmoz. Era berean, biomasatik datozen gas naturalari, briketei eta pelletei eta sutarako egurrari aplikatu beharreko BEZaren zerga-tasa % 10era murriztuko da, eta neurri horrek indarraldi bera izanen du.

Horrez gain, eta kasu honetan ere 2026ko ekainaren 30era arte, % 21etik % 10era jaisten da erregeari aplikatu beharreko BEZaren tasa. Horrek

aurrezpen handia ekarriko die familiei, beren joan-etorrien kostua murriztuko baita.

Hala ere, salbuespenetzko neurriak direnez, BEZaren tasek 2026ko ekainean izanen dituzten murrizketak, betiere, ukitutako produktuen kontsumoko prezioen indizearen bilakaeraren mende geratzen dira.

Aurreko neurriak alde batera utzita, aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 69.2.6 artikulua, eta, horren ondorioz, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezitik (aurrerantzean, NAAABa) baztertzeko ezarrita dagoen diru-muga bera aplikatuko da ondasunak eta zerbitzuak eskuratu eta inportatzeagatik zenbatekoen kasuan (diru-muga hori Estatuko araudian ezarrita dago). Lurralde erkidean, muga hori Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 124.Bi.6 artikulua bidez dago araututa (lege horren beraren hamahirugarren xedapen iragankorren bidez aldi baterako aldatu zen). Aldaketa horren helburua da, beraz, Nafarroako araubide bereziaren eremu subjektiboa Estatuko araudian bezala definitzea.

Helburu bera du martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 32.2.a) artikulua aldaketak, zeinaren ondorioz Estatuko araudira jo behar baita NAAABetik bazter uztea eragiten duten eragiketen diru-mugaz den bezainbatean. Lurralde erkideari dagokionez, muga hori aurreikusita dago abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 43.2.a) artikuluan.

Era berean, hobetu egiten da 32. artikulua 2.a) eta 3. apartatuen idazkera, eta argitzen da ezen, araubide berezitik baztertzeko muga kalkulatzeko, kontuan hartuko direla BEZaren araubide erraztua eta NAAABaren araubidea aplikatu behar zaizkien nekazaritza- edo abeltzaintza-jarduerak guztiak, eta, diru-sarreraren bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko ondorioetarako, kontuan hartuko direla zergari buruzko foru legearen 29.1.c) eta 36.1 artikuluetan aipatzen diren erregistro liburuetan jaso behar diren diru-sarrera guztiak.

Horregatik guztiagatik, tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu hau eman behar da, aipatutako zergei dagokienez Foru Komunitatean aplikatu daitezkeen Estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berak.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita seiko apirilaren batean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat, DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuak zehaztea 2026ko zergaldira-ko.

1. 2026ko ekitaldirako, hauxe izanen da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria: zergaldi horretan energia elektrikoa (zentraleko barratan neurtua) ekoizteagatik eta sisteman sartzeagatik zergadunak eskuratu beharreko zenbateko osoa, instalazio bakoitzeko, ken lehenengo hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien % 10, eta ken bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien zenbateko osoa.

2. Lehenengo hiruhilekoko ordainketa zatikatua kalkulatu da zergaldiaren hasieratik urteko lehenengo hiru hilabeteak bukatu arte ekoiztako eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoaren balioaren arabera, zentraleko barratan neurtua, ken hiruhileko natural horretan sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien zenbatekoaren % 10, eta % 7ko zerga-tasa aplikatuko da.

Bigarren hiruhilekoko ordainketa zatikatua kalkulatu da zergaldiaren hasieratik urteko lehenengo sei hilabeteak bukatu arte ekoiztako eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoaren balioaren arabera, zentraleko barratan neurtua, ken lehenengo hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien % 10, eta ken bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien zenbateko guztia, % 7ko zerga-tasa aplikatuta, eta, orobat, 2026ko ekitaldiaren kontura aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoak kenduta.

Hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuak kalkulatu dira zergaldiaren hasieratik urteko lehenengo bederatziruhileko edo hamabi hilabeteak (kasua zein den) bukatu arte ekoiztako eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoaren balioaren arabera, zentraleko barratan neurtua, ken lehenengo hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien %10, eta ken bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizi-

tateari dagozkion ordainsarien zenbateko guztia, % 7ko zerga-tasa aplikatuta, eta, orobat, 2026ko ekitaldiaren kontura aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoak kenduta.

2. artikulua. Produktu energetikoen Europar Batasunaren barruko entrega eta eskurapen bultzetan balio erantsiaren gaineko zergan aplikatu beharreko zerga-tasa.

Ondorioak izanik 2026ko martxoaren 22tik aurrera, eta indarra, berriz, 2026ko ekainaren 30era arte, balio erantsiaren gaineko zergan % 10eko zerga-tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruan egiten diren entrega eta eskurapen hauei:

a) Honako hauen alde egiten diren energia elektrikoaren entrega eta eskurapenak:

– Kontratutako potentzia (potentzia-termino finkoa) 10 kW-etik beherakoa duten elektrizitatearen hornidura-kontratuen titularrak, edozein direla ere horniduraren tentsio maila eta kontratazio modalitatea.

– Elektrizitatearen hornidura-kontratuen titularrak, elektrizitatearen bonu soziala jasotzen badute eta aitortua badute kaltebera larriaren izaera edo gizarte-bazterketa arriskuan dagoen kaltebera larriaren izaera, bat etorri urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez arautzen baitira kontsumitzaile kalteberaren figura, bonu soziala eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileak babesteko beste neurri batzuk.

Apirilean elektrizitatearen KPlaren aldaketa aurreko urteko hil bereko KPlaren % 15etik gorakoa ez bada, Estatistikako Institutu Nazionalak maiatzean argitaratzen duen informazioaren arabera, ekainean, letra honetan araututako tasaren murrizketa aplikatzeari utziko zaio.

b) Biomatatik datozen gas naturala, briketak eta pelletak, eta su-egurra.

Apirilean gasaren KPlaren aldaketa aurreko urteko hil bereko KPlaren % 15etik gorakoa ez bada, Estatistikako Institutu Nazionalak maiatzean argitaratzen duen informazioaren arabera, ekainean, letra honetan araututako tasaren murrizketa aplikatzeari utziko zaio.

Erregai gisa erabiltzeko gasolinak, gasolioak eta bioerregaiak, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 50.1 artikuluko 1. tarifako 1.2.1, 1.2.2, 1.3, 1.4, 1.5, 1.6, 1.8, 1.12, 1.13, 1.14 eta 1.15 epigrafeetan jasotakoak.

Apirilean erregaien KPIaren aldaketa aurreko urteko hil bereko KPIaren % 15etik gorakoa ez bada, Estatistikako Institutu Nazionalak maiatzean argitaratzen duen informazioaren arabera, ekainean, letra honetan araututako tasaren murrizketa aplikatzeari utziko zaio.

3. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 69.2.6 artikulua aldatu eta honela geldituko da:

“6. Aurreko urtean enpresaburuek edo profesionalek beren enpresa edo lanbide jarduera guztietarako eskuratu eta inportatutako ondasun eta zerbitzuek, ibilgetuko elementuenak kenduta, gainditzen dutenean Estatuko araudian horretarako ezarritako zenbatekoa”.

4. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren aldaketa.

Honela idatzita geldituko dira martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren manu hauek:

Bat. 32.2.a) artikulua.

“a) Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia eta araubide erraztua aplikatu behar zaizkien nekazaritzako, basogintzako, abeltzaintzako eta arrantzako jarduerekin lotutako eragiketa guztietarako, Estatuko araudiak ondorio horietarako ezarritako zenbatekoa gainditzuten duten subjektu pasiboak”.

Bi. 32.3 artikulua.

“3. Aurreko apartatuan aipatutako eragiketen zenbatekoa zehazteko, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) 2.a) apartatuan aipatzen diren jardueretan egindako eragiketen kasuan, 29.1.c) eta 36.1 artikuluetan aipatzen diren erregistro liburutetan jaso behar direnak baino ez dira zenbatuko.

b) 2.b) apartatuan aipatzen diren jardueretan egindako eragiketen kasuan, zergari buruzko foru legearen 66. artikuluan xedatutakoaren arabera zenbatuko dira. Halere, ondasun higiezinak errentan emateko eragiketak ez dira zenbatuko baldin eta jarduera ekonomikorik ekartzen ez badute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudian xedatutakoaren arabera”.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduzko xedapenen mailaren babesa.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honen bidez aldatzen diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduko manuak foru dekretu bidez aldatzen ahalko dira.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta bertan ezarritako ondorioak izanen ditu.

Iruñean, 2026ko apirilaren 1ean

Nafarroako Gobernuako Lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilaria: José Luis Arasti Pérez